

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URRUNAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak eta onura publikoko mendia lagatzea Akosta, Buruaga, Eribe, Gopegi, Nafarrate, Urrunaga eta Zestafeko ehiza esparrua eratzeko

Akosta, Buruaga, Eribe, Gopegi, Nafarrate, Urrunaga eta Zestafeko kontzejuek ehiza esparrua (matrikula: VI-10181) berritzea erabaki dute. Ehiza esparruaren titularra Urrunagako Administrazio Batzarra da, jabe taldearen ordezkartzan.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun baliouduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

- Onura Publikoko 365 Mendia. Alday, Gopegiko Kontzejuarena.
- Onura Publikoko 366 Mendia. Alday eta Goikolanda, Gopegiko Kontzejuarena.
- Onura Publikoko 369 Mendia. Arapa, Gopegiko Kontzejuarena.
- Onura Publikoko 377 Mendia. Iturrigarroaga, Eribeko Kontzejuarena.
- Onura Publikoko 379 Mendia. Libusti, Buruagako Kontzejuarena.

OPM horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzejuan dago interresdunen esku.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Urrunaga, 2020ko uztailaren 13a

Lehendakaria

JESÚS CARLOS ORTIZ DE MONTOYA SANTO TOMÁS